# Xedapen Orokorrak

## HERRIZAINGO SAILA

**4342**

AGINDUA, 1994ko azaroaren 23koa, Herrizaingo sailburuarena, «B» motako joko-makinen instalazio buletinaren baimena arautzen duena.

Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 7. atalean xedatzen denaren arabera, baimendutako jokoen berarizko araudiak Herrizaingo Sailak onartuko ditu, horien artean, kudeatu eta ustiatzeko arauak eta ikerketa eta kontrol administratiboaren xederako eskatu beharreko agirisorta.

Joko-makinen azpiarloan arauak ezartzen izandako esperientziak komenigarri egiten du zenbait neurri hartzea, horrekin hiru helburu lortuz: bat, administrazioaren aldeko kontrol neurriak sendotzea; bi, makinak instalatzeko ordurako lege aldeko baldintza guztiak arautzea; eta hiru, enpresa ikuspegitik enpresa operatzaileen eta baimendutako establezimenduen artean izandako harremanei iraunkortasuna ematea.

Horiez gain, arau hauek behin-behinekoak izango dira, jokoaren azpiarloa era oso eta antolatuan arautu dezan Joko-Makinen Araudia onartzen ez den artekoak, alegia.

Guzti horregatik, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko baimendutako establezimenduetan jartzen diren «B» motako joko-makinak jartzeko instalazio buletinen baimena arautzeko xedea du Agindu honek, Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legean ezarritakoa betez.

*2. atala.*– 1.– Instalazio buletina administrazio mailako agiria da, Agindu honen eraskinean jasota datorren inprimaki normalizatuan hiru aletan luzatua, eta horren bidez enpresa operatzailea eta establezimenduaren jabea hitzartuta gelditzen dira «B» motako makina jakin bat baimendutako establezimenduan jartzeko.

2.– Instalazio buletina derrigorrezkoa da «B» motako joko-makina ustiatzeko baina ez da nahikoa, ustiatzeko baimena ere behar baitu.

*3. atala.*– 1.– Instalazio buletina enpresa operatzaileak eta establezimenduaren jabeak izenpetuko dute,

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**4342**

ORDEN de 23 de noviembre de 1994, del Consejero de Interior, por la que se regula el régimen de autorización del boletín de instalación de las máquinas de juego de tipo «B».

El artículo 7 de la Ley 4/1991 de 8 de noviembre, Reguladora del Juego, señala que el Departamento de Interior aprobará las regulaciones específicas de los juegos autorizados, entre las que se encuentran el régimen de gestión y explotación y la documentación exigible a efectos de inspección y control administrativo.

La experiencia acumulada en la aplicación de las normas en el subsector de máquinas de juego hace aconsejable introducir una serie de medidas que refuercen las medidas de control administrativo, regulen acabadamente las condiciones de instalación de las máquinas desde el punto de vista de su régimen jurídico y doten de estabilidad en el tiempo a las relaciones mantenidas entre las empresas operadoras y los establecimientos autorizados, considerados ambos desde la óptica empresarial.

Asimismo, se señala que esta normativa tienen carácter provisional hasta tanto se produzca la aprobación del Reglamento de Máquinas de Juego que de una manera completa y sistemática regule este subsector de juego.

Por cuanto antecede,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Es objeto de la presente Orden la regulación del régimen de autorización del boletin de instalación respecto de las máquinas de juego de tipo «B» que se instalen en establecimientos autorizados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de acuerdo con lo señalado en la Ley 4/1991, de 8 de noviembre Reguladora del Juego.

*Artículo 2.*– 1.– El boletín de instalación es el documento administrativo, formalizado por triplicado en el impreso normalizado que se adjunta como Anexo a la presente Orden, mediante el cual se vincula la empresa operadora y el titular del establecimiento, para la instalación de una concreta máquina de tipo «B» en un establecimiento autorizado.

2.– El boletín de instalación es documento necesario pero no suficiente para la explotación de una máquina de juego de tipo «B», debiendo estar amparado por el correspondiente permiso de explotación.

*Artículo 3.*– 1.– El boletín de instalación estará suscrito por la empresa operadora y el titular del estableci-

eta Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren baimena ere beharko du. Honako datu hauek jasoko dira gutxienez bertan:

a) Makina mota, erregistro zenbakia eta saila.

b) Ustiatzeko baimenaren zenbakia.

c) Nortasun Agiri Nazionala edo, behar bada, enpresa operatzailearen Identifikazio Fiskaleko Kodea eta izena, eta Jokoaren Errolda Nagusian duen izenemate-zenbakia.

d) Nortasun Agiri Nazionala edo, behar bada, establezimenduko jabearen Identifikazio Fiskaleko Kodea eta helbidea, eta baita establezimenduaren izen komertziala eta helbidea ere.

2.– Instalazio buletinaren baimenak hiru urterako balioa izango du Administrazioak ematen duenetik kontatzen hasita, eta epe hori beste hiru urtez luzatu ahal izango da, baimenak indarra galdu baino bi hilabete lehenago alde batek edo besteak haren balioa salatzen ez badu.

*4. atala.*– 1.– Instalazio buletinaren baimena honako arrazoiren batengatik amaituko da:

a) Buletinaren gehienezko indarraldia igarotzeagatik.

b) Aldeek idatziz horrela erabakitzen dutelako Administrazioaren aurrean.

c) Instalazio buletinaren baimena amaituta dagoela adierazten duen epai irmoagatik.

d) Aurkeztutako zenbait datu edo baimena lortzeko erantsitako agirietan azaldutako beste zenbaiten artean ezberdintasun garrantzizkoak antzematen direlako; hori gertatuz gero, beharrezkoa izango da Joko eta Ikuskizun zuzendariaren erabaki arrazoitua.

e) Edozein arrazoirengatik, instalazio buletinaren oinarri zen ustiatzeko baimena amaituta gelditzen delako, edo enpresa operatzailearen jabegoa ezezten delako.

f) Zigor-espediente baten ondorioz jarritako zigorragatik, zigor horrekin batera instalazio buletinaren oinarri den baimena amaitu edo geldiaraztekoa badakarte.

g) Bi aldeen artean ustiatzen ari diren makinaren inguruan hitzartutako baldintza ekonomikoak horietako alde batek aldatzeagatik, baldintzak idatziz jasota izanez gero.

h) Instalazio buletinean oinarritutako «B» motako makina ustiatzean, bi aldeetako batek errentagarritasun ekonomikorik ateratzen ez duelako. Kasu horretan, espedientea erabaki ahal izateko, Administrazioak makinaren ustiaketaren kontu-ikuskaritza eska diezaioke errentagarritasun eza alegatzen dionari.

2.– Establezimendua edo enpresa operatzailea jabe berri baten eskura joanez gero, horrek ez du amaituko

miento, debiendo ser autorizado por la Dirección de Juego y Espectáculos. Contendrá, al menos, los siguientes datos:

a) Modelo, número de registro y de serie de la máquina.

b) Número de autorización del permiso de explotación.

c) Documento Nacional de Identidad, o Código de Identificación Fiscal, en su caso, de la empresa operadora, así como nombre o razón social y número de inscripción en el Registro Central de Juego de la misma.

d) Documento Nacional de Identidad, o Código de Identificación Fiscal, en su caso, y domicilio del titular del establecimiento, así como nombre comercial y domicilio del establecimiento.

2.– La autorización del boletín de instalación tendrá una vigencia de tres años desde la fecha de su expedición por la Administración, prorrogándose por otro periodo de igual duración si no se produjera denuncia de su validez por cualquiera de las partes, dos meses antes de la fecha de vencimiento de dicha autorización.

*Artículo 4.*– 1.– La autorización del boletín de instalación se extinguirá por alguna de las siguientes causas:

a) Por el cumplimiento del plazo máximo de vigencia del boletín.

b) Por mutuo acuerdo de las partes, manifestado por escrito ante la Administración.

c) Por sentencia firme que declare la extinción de la autorización del boletín de instalación.

d) Por comprobación de inexactitudes sustanciales en los datos consignados o en la documentación adjuntada para su autorización, siendo preceptiva, en este caso, resolución motivada del Director de Juego y Espectáculos.

e) Como consecuencia de la extinción, por cualquier causa, del permiso de explotación que amparaba el boletín de instalación, o de la revocación de la inscripción del titulo de empresa operadora.

f) Por sanción impuesta a través del correspondiente expediente sancionador, que conlleve la extinción o suspensión de la autorización que ampare el boletín de instalación.

g) Como consecuencia de la modificación unilateral de las condiciones económicas acordadas entre las partes respecto de la máquina objeto de explotación, cuando las mismas estuvieran formalizadas por escrito. En tal caso, la solicitud de extinción solo podrá ser presentada ante la Administración por la parte afectada por dichas modificaciones.

h) Por falta de rentabilidad económica para alguna de las partes, en la explotación de la máquina de tipo «B» amparada en el boletín de instalación. En este supuesto, para la resolución del expediente, la Administración podrá solicitar de quien aduzca la falta de rentabilidad, la auditoria de explotación de la máquina afectada.

2.– El cambio de titularidad respecto del establecimiento o de la empresa operadora no supondrá la extin-

instalazio buletinaren baimenaren indarraldia, izan ere, jabe berria lehengoaren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da, jabe berriak Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzaren aurrean buletinaren baimenaren balioa salatzen duenean izan ezik; kasu horretan, salaketa egiten den urteko abenduaren 31ra arte geldituko da soilik subrogatuta.

3.– Atal honetako 1 zenbakian ezarritakoa alde batera utziz, aldeetako batek indarrean dagoen instalazio buletina duen joko-makina bat ustiatzeari uko egitea gertatuz gero, ondorioak hauek lirateke: erantzule establezimenduaren jabea bada, buletinetan zigilua jartzeko inhabilitazio zigorra jarriko zaio aurreko buletinak zuen epea igaro arterako, eta erantzule enpresa operatzailea izanez gero, ezingo du ustiatzeko baimenik izan epe hori igaro arte. Erabaki hori Joko eta Ikuskizun zuzendariak hartuko du.

4.– Aurreko ataleko g) eta h) zatietan jasotako arrazoiengatik gertatzen denean amaitzea, erabaki hori Joko eta Ikuskizun zuzendariak hartuko du, dagokion espedientea ireki ondoren. Espedientean erabaki ahalik eta egokiena hartzeko, Administrazioak eragindako arloetako elkarte garrantzitsuenei denen artean txostena egin dezaten eska diezaieke.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Agindu honek indarra hartu aurretik gauzatutako instalazio buletinek balioa izango dute hitzartu zireneko epea igaro arte edo beste batzuk ordezkatzen dituzten arte, une horretatik aurrera arau honen menpe geldituko direlarik.

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabe gelditzen da Agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko azaroak 23.

Herrizaingo sailburua,
JUAN M. ATUTXA MENDIOLA.

ción de la autorización del boletín de instalación vigente, debiendo subrogarse el nuevo adquirente en los derechos y obligaciones del anterior, salvo que por parte del nuevo titular se presente ante la Dirección de Juego y Espectáculos denuncia de la validez de la autorización del boletín, quedando en este caso únicamente subrogado hasta el 31 de diciembre del año en que dicha denuncia se produzca.

3.– Sin perjuicio de lo dispuesto en el número 1 de este artículo, la negativa por cualquiera de las partes a explotar una máquina de juego con un boletín de instalación vigente determinará, para el titular del establecimiento, si fuera el responsable, la inhabilitación para el sellado de nuevos boletines hasta que se cumpla el plazo que el anterior tuviere señalado, y para la empresa operadora, si ésta fuera la responsable, la imposibilidad de disponer del permiso de explotación hasta tanto transcurra dicho plazo. Dicha medida será adoptada por resolución del Director de Juego y Espectáculos.

4.– La extinción por las causas recogidas en los apartados g) y h) del número anterior, se realizará por resolución del Director de Juego y Espectáculos previa la instrucción del oportuno expediente. La Administración, para la mejor resolución del expediente, podrá recabar informe conjunto de las asociaciones profesionales más representativas de los sectores afectados.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los boletines de instalación formalizados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Orden, serán válidos hasta el vencimiento del plazo por el que se hubieren suscrito o hasta el momento en que fueran sustituidos por otros, regulándose, a partir de esa fecha, por los preceptos de esta norma.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo previsto en la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de noviembre de 1994.

El Consejero de Interior,
JUAN M. ATUTXA MENDIOLA.

ERASKINA/*ANEXO*

# Jolas-makinak Jartze Agiria
## Boletín de Instalación de Máquinas Recreativas y de azar

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| DARABE / EOPER | NAN-IFK<br>DNI-CIF | ABIZENAK ETA IZENA<br>APELLIDOS Y NOMBRE | | J.M.D. ENPRESEN ZK.<br>N.º EMPRESA OPERADORA |
| | KALEA<br>CALLE | ZK.<br>N.º | UDALERRIA<br>POBLACION | URRUTIZKINA<br>TELEFONO |
| MAKINA / MAQUINA | USTIATZEKO BAIMENA<br>PERMISO DE EXPLOTACION | MODELO ETA ZK.<br>MODELO Y N.º DE REGISTRO | | SERIE ZK.<br>N.º Y SERIE |
| | INSTALAZIO DATA<br>FECHA DE INSTALACION | | | |
| ARETO / LOCAL | JARRI NAHI DINEREKO TEGIEN IZENA ETA HELBIDEA<br>NOMBRE Y DOMICILIO DEL ESTABLECIMIENTO DONDE SE INSTALA | | | |
| | MAILA<br>CATEGORIA | JABEA<br>TITULAR DEL NEGOCIO | | NAN-IFK<br>DNI-CIF |
| | KALEA-UDALERRIA<br>CALLE-POBLACION | | | URRUTIZKINA<br>TELEFONO |

DATA
FECHA

DARABILTEN INPRESA
EMPRESA OPERADORA

TEGIAREN JABEA
INTERESADO

INSTALAZIO BULETINAREN BAIMENAK HIRU URTERAKO BALIOA IZANGO DU ADMINISTRAZIOAK EMATEN DUENETIK KONTATZEN HASITA, ETA EPE HORI BESTE HIRU URTEZ LUZATU AHAL IZANGO DA, BAIMENAK INDARRA GALDU BAINO BI HILABETE LEHENAGO ALDE BATEK EDO BESTEAK HAREN BALIOA SALATZEN EZ BADU.

LA AUTORIZACION DEL BOLETIN DE INSTALACION TENDRA UNA VIGENCIA DE TRES AÑOS DESDE LA FECHA DE SU EXPEDICION POR LA ADMINISTRACION, PRORROGANDOSE POR OTRO PERIODO DE IGUAL DURACION SI NO SE PRODUJERA DENUNCIA DE SU VALIDEZ POR CUALQUIERA DE LAS PARTES, DOS MESES ANTES DE LA FECHA DE VENCIMIENTO DE DICHA AUTORIZACION

J.I.A. rako alea. / Ejemplar para la D.J.E. Makinarako alea / Ejemplar para la Máquina. J.M.D. Enpresarako alea / Ejemplar para la Empresa Operadora.